

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Garraiorako dirulaguntzen deialdia, 2025-2026 aldirako

Udalbatza honek, 2026ko otsailaren 16an balio osoz egindako osoko bilkuran, 2025-2026 aldirako garraio laguntzak emateko deialdia eta horren oinarri arautzaileak onetsi zituen. Horren gainean hartutako hirugarren erabakia betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2026ko irailaren 14a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Garraiorako laguntzak emateko udal programa arautzen duten oinarriak, 2025-2026 aldirako

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25. artikuluan ezartzen duenez, udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, nahi adina jarduera susta ditzake eta nahi adina zerbitzu publiko eman ditzake herritarren beharri-zanei eta nahiei erantzuteko.

Udal honen ustez, beharrezkoa da derrigorrezkoak ez diren ikasketak egin nahi dituzten herri honetako biztanleek eta goi mailako ikastetxeak dituzten udalerrietan bizi diren ikasleek baldintza berak edukitzea.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik oinarri arautzaileak onetsi behar dira.

Ikusirik Gaubeako Udalaren 2025-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Orokorra, onartu egiten da derrigorrezko hezkuntza baino maila altuagoko ikasketak egiten ari diren ikasleen edo, prestakuntza prozesuetan sartze aldera, gizarteratzeko ibilbidea egiten ari diren pertsonen garraiorako laguntzak emateko deialdi publikoa. Hona hemen oinarriak:

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Eskola garraiorako laguntzen onuradun izan daitezke Gaubeako udalerrian erroldatuta dauden eta 27 urte baino gehiago ez duten ikasleak, baldin eta derrigorrezko hezkuntza baino maila altuagoko ikasketak egiten ari badira Euskal Autonomia Erkidegoko edo ohiko etxebizitzatik gehienez 150 kilometrora dagoen edozein ikastetxe ofizialetan, publikoa nahiz pribatua izan, bai eta ere erakunde publikoek laneratzeko sustatutako ikastaroetara joateko udalerritik kanpo joan-etorriak egin behar dituzten langabetuak ere.

Bigarrena. Aurrekontuko zuzkidura

Ekitaldi honetako aurrekontuko 4412 480000 partidan 10.000,00 euroko aurrekontuko zuzkidura dago.

Hirugarrena. Onuradunak

Eskola garraiorako laguntzen onuradun izan daitezke Gaubeako udalerrian erroldatuta dauden eta 27 urte baino gehiago ez duten ikasleak, baldin eta derrigorrezko hezkuntza baino maila altuagoko ikasketak egiten ari badira Euskal Autonomia Erkidegoko edo ohiko etxebizitzatik gehienez 150 kilometrora dagoen edozein ikastetxe ofizialetan, publikoa nahiz pribatua izan, bai eta erakunde publikoek laneratzeko sustatutako ikastaroetara joaten diren langabetuak ere.

Dirulaguntza honako ikasketa hauek egiteko joan-etorrietarako emango da:

- Batxilergoa.
- Erdi mailako LH.
- Goi mailako hezkuntza, zehazki honako hauek:
 - Unibertsitate ikasketak.
 - Goi mailako arte ikasketak.
 - Arte plastikoetako eta diseinuko goi mailako ikasketa profesionalak.
 - Goi mailako LH.
 - Goi mailako kirol ikasketak.

Ez dira diruz lagunduko hizkuntza eskoletako hizkuntza ikasketak; filologia ikasketetarako garraioa baino ez da diruz lagunduko.

Laguntza hauen onuradun dira, halaber, prestakuntza prozesuetan sartzeko gizarteratze ibilbidea egiten ari diren pertsonak.

Laugarrena. Eskaerak eta dokumentazioa

Eskaerak Gaubeako Udalarri zuzendu behar zaizkio eta honako dokumentazio hau erantsita behar da:

- Ikasketak egiten diren ikastetxeko matrikularen fotokopia.
- Garraioa erabili dela egiaztatzen duen dokumentazioa (txartelak, fakturak, kuotak).
- Dirulaguntza jasoz gero hura ordaintzeko banku kontua (IBAN).
- Beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturi egindako dirulaguntza eskaeraren kopia.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko eta hutsak zuzentzeko epea

Eskaerak 2026ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako dokumentazioan ez badira jaso eskatutako datu guztiak, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari horiek denak osatzeko. Gainera, ohartarazi egingo zaio ezen, epe horretan aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola esan nahiko duela, betiere dagokion ebazpena eman ondoren.

Seigarrena. Balioespen batzordea

Eskaerak informazio batzordeak balioetsiko ditu, eta hark erabakiko du deialdian izan daitekeen edozein salbuespenen inguruan.

Zazpigarrena. Laguntzen zenbatekoa erabakitzeko irizpideak

Hezkuntza arautuaren kasuan, laguntzaren zenbatekoa finkoa izango da: 350,00 euro, kontuan hartuta eskatzaileak izandako gastua.

Zenbateko hori murriztu ahal izango da, baldin eta eskatzaileak lortutako laguntzen baturak eskatutako zenbatekoa gainditzen badu edo beste edozein erakunde publiko edo pribaturi laguntza eskatzeko baldintza bete ez badu.

Langabeen kasuan, Informazio Batzordeak kasu zehatz bakoitza aztertuko du, eta dirulaguntza egiten den ikastaroaren edo ikastaroen iraupenaren arabera ezarriko da, gutxienez 25 orduko iraupena eskatuta.

Zenbateko horiek eskatutako eta aurkeztutako txartelen bidez justifikatutako zenbatekoaren arabera ordainduko dira, betiere laguntzaren xede den kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada.

Zortzigarrena. Ebazpena

Edozein erakunde publiko nahiz pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza guztiak ezagutu eta gero, udalak deialdia ebatziko du, balioespena egiten duen informazio batzordearen proposamen arrazoitua aztertutik, proposamena egin eta gero egiten den lehenengo ohiko bilkuran.

Deialdia ebatzeko eta ebazpena argitaratzeko gehieneko epea 2027ko urtarrilaren 31 izango da. Epe hori igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaerei ezezkoa eman zaiela esan nahiko du.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Bederatzigarrena. Laguntzak ordaintzea

Laguntzak eskaeran emandako kontu zenbakian banku transferentzia eginez ordainduko dira.

Onuradunei laguntzak emateko eta, hala dagokionean, horiek ordaindu ahal izateko, bukatuta egon beharko du oraindik ere izapidetze fasean dagoen edozein itzulketa edo zehapen prozedurak, hain zuzen, beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk ematen dituen izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan abiarazitakoak.

Hamargarrena. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi hau baliatuz ematen diren laguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste laguntza batzuekin.

Hamaikagarrena. Ebazpena aldatzea

Laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

Hamabigarrena. Itzulketa

Ikasleak ikasketak uzten baditu laguntza eskatu duen ikasturtean, laguntzak bertan behera geratuko dira eta ikasleak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu.

Itzuli beharreko diru zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera gisa hartuko dira, eta, itzulketa ez bada egiten xede horretarako ezartzen den epearen barruan, premiamendu bidea erabili ahal izango da.

Hamahirugarrena. Ikuskatzea, kontrola eta jarraipena

Diruz lagundutako jarduera ikuskatu, kontrolatu eta haren jarraipena egiteko eskubidea du udalak, bai eta beharrezkotzat jotzen duen edozein egiaztagiri eskatzeko ere.

Hamalagarrena

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatutakoa beteko da.

Oinarri hauen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, hilabeteko epean edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean.